

AMAREN UTSUNEA

Euskalerriko gotzainen karta pastoralean, ainbat egi sakon ta, askotan, mingarri artean, beste au be agertzen da: «Hutsegite haundia izango litzateke Maria gure kristau bizitzatik kentzea. Horrekin gure fedea ez litzateke aberastuko, eta bai larriki pobretuko».

Gure kristau gazteen biotzetan ez dogu Maria Birjiñagana-ko maitasun samurra ta zuzena ixte eraiten. Ori argi dago. Begi aurrean ditut, esaterako, euskal kristau gazteak Sendotzako sakramentua gertatzeko dabizan ainbat liburu, kuaderno, montaje, txosten eta inondiko pedagogi dinamikaz baliaturik, gainera. «Roleplaying», «brainstorming», «happening» ta zer ez! Ondo dago jolas gisan sinismena be iragartea. Zenbat ta entretenigarriago katekesia, obeto. Zelan jaten dan inportantea izango da baina beti izango da inportanteagoa zer jaten dan! Pintxoekin janaritzea gauza bat da ta beste bat lapikoko eder bat bazkaldu.

Ume ta gazte katekesi gaietan, Ama Birjiña ixte aitatu be ez da egiten. Ain kristau erria izan dan Arrati bailaran, Sendotzarako euskaraz atara izan dan kuaderno ta txostenetan oso osorik ixiltzen da. Zer ez da bertan agertzen! Baina Zeruko Ama baztertuta. Marrazkitxo bat bera be ez. Baztertxo baten, bein bere izena ta bertan Luther King, Teresa Kalkuta, Helder Camara, Gandhi ta abarren artean. Ta Jesus sortu zanetik zeruratzeraino ezagutu eban pertsona bakarra Maria izan... Pentsatekoa!

Baliteke, leena Mariarenganako izan diran geiegikeri ba-

tzuk garbitzea, bearrezkoa izatea. Orretan ogetabost urte once-
tan egin dira aleginak. Orrek ez dau nai esan Zeruko Ama baz-
tertzea ta isiltzea. Ori gure kristau gazte egiten dautsagun lapur-
keta aundi bat da. Ez dago eskubiderik gazteen biotzetik Zeruko
Amaren debozioa ta maitasuna kentzeko. Ertz batetik bestera
joten ez gara makalak. Euskaldunoi markak ondutzea atsegin
jaku. Leen «euskaldun fededun», orain «euskaldun ez fededun»
nai dogu gure gaztedia biurtu. «Euskaldunon gatzak» izango dira
Atxagaren errixetan.

Ez jako arrazoirik falta, euskera eder ta gozoa dabilen kaze-
tari zorrotz oneri. «Gorriekin bat egin omen zuten euskaldunek,
munduko katolikurik sutsuenak eta zintsoenak zirela erakutsi
behar zuten Erroman eta Eliza osoan, gerra aurretik, gerratean
eta gerra ondoan. Gerotxoago, munduko marxistenak, ezkerre-
nak eta aurrerakoienak ginela erakutsi behar izan genuen. Lar-
deskeriaren kontrako borrokalari trebe, ausart eta bortzenak gi-
nela hurrena. Eta aldi bakoitzean jarri zaigun neurria, beste guz-
tiek baino hobeto gaintitu dugula sinetsi izan dugu, gainera. Gu
baino katolikuarik ez zen, gu baino marxistagorik ez da izan, eta
gu baino iraultzaile borrokalariagorik ez da agertu inon».

Mariarengauako izan diran geiegikeri batzuk garbitzeko,
katekesian Zeruko Ama baztertzea ta isildua izan da. Ta ondo-
rioak or ditugu, gazteak umezurtz sinismenean. «Agur Maria
erresceteri itzi ezker, berelaxe izten jako Gure Aita erresetari
be». Euskal kristau gazteengan, Amaren utsunea nabaria da. Li-
turgi Pastoraltzako Arduradunen berbak kontuan artzekoak
dira: «Esan daiteke, zalantzik gabe, Amaren beroak lagundu diola
gure kristau herriari Semcarenganako fedean irauten eta, ga-
raian garaiko argitasunez, fededun eta eliztar izaten. Ama Birji-
ñaren bidez eman zigun Jainkoak bere Semca Salbatzaile. Gaur
ere, Amak bere Semearen dohaina munduari eta gure herriari
eskaintzen dihardu eta berengana hurbiltzen direnak Jesusenga-
na zuzentzen ditu».

XX. gizaldiaren azkenurteotan be, ez dogu aurkituko eus-
kal kristau gazteentzat, Jaunaren berbea entzuten ta biotzean

gordeten ta Jaunari baietz esaten Ama Birjina aiñakorik. Munduaren eta gizartean aldakuntza sakonen barruan, kristau gaztedia Ama Birjinaaren premina gorrian daukagu. Ezpeletako seme bikain ta eliz kardinal dan Roger Etchegary'ren poema onek garbi erakusten dausku fede mailan Nazareteko Mariaren paregabeko testigantza garrantzitsua:

«Maria Birjina Santua
Mendiko Hitzaldia onartzen
laguntzen gaituzu,
hainbeste ahotan erabiltzen
eta hain gutxi betetzen diren
Zoriontasunak,
uraren isuriaren kontra bait dira,
Oria hibaia Aizkorriko maldan gora
hasiko balitz bezela.

Maria Birjina Santua,
zuk laguntzen gaituzu,
Hitzaren Herria izaten,
Eukaristiaren Herria, mezuaren Herria.
Zer balio du beti azkarrago joateak,
nora goazen ez badakigu?
Zer balio du beti gauza gehiago egiteak,
gero banatzen ez badakigu?
Zer balio die behartsuei aberasteak
eta aberatsei behartsu egiteak,
ez batzuk ez bestek ez badakite
Kristoren antzera bizitzen?

Maria Birjina Santua,
zure ezkuzabaltasuna erakusten diozu
diruak menderatutako munduari.
Zure garbitasuna eskaintzen diozu
isekañ irri egiten eta zikintzen duen munduari.
Zure samurtasuna aurrean jartzen diozu

gogorkerizko eta gorrotozko munduari.

Birjina Maria Santua,
egunero Jainkoari «bai» esateko,
zure era sortu beharra izan duzu,
Egunero, Jainkoa zure bizitzan
aurkitzen ikasi beharra izan duzu,
aurrez uste ez zenuen bezela.

Irakas iezaguzu,
inprimatu berria den orrialdea ez baina
egunero zuria den orrialdea izaten,
bertan Jainkoaren Espirituak
gugan egiten dituen harrigarriak
biribildu ditzan».

A. Olea